EKONOMIA

Duintasunaren orgatxoak

NAROA ELORTZA GORROTXATEGI

Karitatea ez da soluzioa; partxe hutsa da, goitik beherako eredu ekonomikoaren ihesbidea. Pertsonen oinarrizko beharrak estaltzea ezin da eskuzabaltasun indibidualaren menpekoa izan. Justizia soziala lortzeko, egiturazko neurriak eta tresnak behar ditugu.

Panorama, baina, oso bestelakoa da. Eta ez dugu zertan Ceutaraino joan arrazakeriaz, klasismoaz eta aporofobiaz ikaratzeko. Bilbo eta Donostiako alkateek ere izutzeko moduko titularrak utzi dizkigute udan, baita Nerea Melgosa Eusko Jaurlaritzako sailburuak ere. Zaurgarritasuna eta desoreka sozialak larritzen ari diren bitartean, elkartasuna eta karitatea delitu bihurtu zaizkigu Donostian: beharra dutenei laguntze hutsagatik, orgatxodun herritarrak arriskutsu bihurtu dira.

Lehendakariak ere, justifikaezina justifikatu nahian, adierazpen borobilak egin ditu: ez ditu kritikatuko bihotzetik ari direnak, baina gosea modu ordenatuan kendu behar da. Bere ustetan, sistemak funtzionatzen du, eta sistemaren esku utzi behar da. Laburbilduz: ertzetakoak ertzetara kondenatu behar dira.

Arizmendiarrietaren humanismoa ere aipatu du: "zein garrantzitsua den inor alde batera ez uztea, guztiok bizitza osoan garatzeko aukerak izaten jarraitu dezagun". Edo lehendakariak ulermenerako zailtasunak ditu, edota oso argi utzi nahi izan digu zeinek merezi dituen aukerak, zein sartzen den bere *gu*-an, eta zein ez.

Arizmendiarrietak zer egingo lukeen? Ba, ziur aski, Kaleko Afari Solidarioak ekimena indartzeko egiturazko tresnak bultzatu, bi helbururekin. Batetik, kalitatezko zerbitzu komunitarioa eskaintzen segi dezaten baliabide nahikoak bermatzea. Bestetik, autoeraketan eta komunitatearen eraikuntzan oinarritutako ekimen kolektibo hau sendotzeko estrategiak lantzea, gizartearen aktibazioa mantenduz.

Jon Insaustiren erosketa orgatxoan kabitzen ez diren politika humanistak. ●

ANALISIA

Mundiala, Ceuta eta Medgaz

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Gogoan dut maiatzean, ekainean, nolako xextra izan genuen, 2030eko gizonezkoen munduko futbol txapelketa Bilbora eta Donostiara ekarri edo ez. Orain, burua altxatu eta bistan da FIFAk auzi inportanteagoak dituela eskuetan hautagaitza bateratuaren dokumentua baino. Eta gauzak dauden bezala, jeltzaleek ama birjinari ere egingo zioten otoitz abuztuan, bai baitakite hobe izango dela FIFAren ezer ez ekartzea Euskal Herrira.

Duela urte asko esan zen Marokon, Portugalen eta Espainian jokatuko zela 2030eko txapelketa, eta beharbada Uruguain eta Hego Amerikako zenbait lekutan ere egingo da zerbait, mendeurrena beteko baitu Mundialak eta Montevideon egin zen lehen edizioa. Baina posible da orain Espainiako Estatuan ez jokatzea partidu bakar bat ere. Gakoa da finala non jokatuko eta egoitza zentrala zein izango den. Esaten da FIFAk hautatzen duela egoitza, baina esan daiteke inperio yankiak oniritzia eman behar diola. Horregatik, hariak lotuta, Marokok ditu aukera gehien. FIFAko Gianni Infantinoren laguna da Donald Trump, eta bere adiskide, berriz, Marokoko Mohamed VI erregea. Hor dago klabeetako bat. Casablancan, gainera, aspaldi hasi ziren Bartzelonako eta Madrilgo estadioak baino handiago bat eraikitzen.

Futbolaren gibelean dago Ceutako migrazio krisia. Beste behin pobrezia erabili dute arma gisa, eta ez da, ez, erlijio kontu bat, edo batzuek deskribatzen duten "ordezkatze" prozesu bat, baizik eta kolonizazio eta botere auzia. Argi ikusten da Maroko-AEB bikotea trinomio bihurtzen denean arabiarren ustezko etsairik handienarekin juntatzean, Israelekin. Yankiek eta sionistek harreman estua dute, gero eta estuagoa herrialde persiar eta arabiarrak elkarrekin bonbardatzen dituztenean; yankiek ere harreman onbera dute marokoarrekin, geografikoki leku interesgarrian daudenez gero; eta hor sartzen da Israel, gero eta gehiago ari baita gerturatzen Marokora, lurrak erosita eta hainbat erako inbertsioak eginda. Israelgo Gobernuak argi dio, gainera, Marokorenak izan behar dutela Espainiak Afrika iparraldean dituen hiru lurraldeak. Ez da kasualitatea; hala balira, trinomioak leukake Mediterraneoaren sarbide-kontrola.

Eta tentsio geopolitiko horrek, burrunba sismikoek bezalaxe, Andaluziako itsas bazterretan kolpatzen du. Kasuon, Almerian. Hor baitago Espainia Aljeriako kostarekin lotzen duen gasbide esanguratsua, Medgaz, batere begiko ez dutena ez Marokok, ez AEBek eta ez Israelek, hirurak etsaituta baitaude Aljeriarekin. Eta haserre daude, baita ere, Espainiaren norabide politikoarekin.

Kazetari jarduna ez da igarle izateko konduktua, baina han eta hemen esaten ari dira, munduaren ordena dagoen bezala, Medgaz gasbidea Nord Stream berria bihur daitekeela; hau da, erasoren bat jasan dezakeela. ●